

# mararte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarteak (Eizie) 30 urte bete ditu; lanbidearen estatusaren eta profesionalizazioaren defentsa eta trebakuntza dira oraindik, sortu zenean bezala, elkartearen helburuak.

Arantzazu Zabaletaren erreportajea

## 30 urte itzulika

**A**utonomia lortu berria, itzulpen beharrak bistakoak ziren 1980. urte inguruan. Martuteneko itzultzaile eskola zabaldu zuten urte horretan bertan, udazkenean. Eskuz eta hiztegi mar-dul baten laguntzaz itzultzen zituzten orduan testuak irakasle moduan aritzen zirenek. Irakasle horiek eta eskola hori izan ziren 1987. urtean sortu zen Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (Eizie) abiapuntua. 30 urte bete berri ditu elkarteak.

Ordutik egoera nabarmen aldatu da, alde batetik, teknologia berrien garapenarengatik eta teknologia horiek erabiltzen aitzindari izan da elkarteak. Beste aldaketa nagusi bat ere antzeman du Karlos del Olmo bazkideak: "Elkarteak sortu zenean zuzendaritzako guztiak gizonezkoak ziren, Lourdes Auzmendi izan ezik; orain alderantziz gertatzen da, gizon bakarra dago eta gainerakoak emakumezkoak dira". Juan Mari Lekua izan zen lehen lehendakaria eta gaur egun Idoia Gillenea da elkartearen zuzendaritzako buru.

23 urte daramatza elkartearen Del Olmok eta zuzendaritzatik pasata-

koa ere bada. Egun elkartearen Senez aldizkaria zuzentzen du eta Donostiako Udaleko itzultzaile eta interprete da ogibidez. Denbora honetan guztian bazkide kopurua ere handitu dela kontatu du: hasieran 100 bat lagunek osatu zuten Eizie eta egun 400 bazkide inguru dira, guztiak itzultzaile, zuzentzaile edo interprete profesionalak.

Izan ere, elkartearen helburu nagusia hasieratik lanbidearen estatusaren eta profesionalizazioaren alde egitea izan da, alde batetik, eta profesional berriak trebatzea ere bai, bestetik. Horretarako hainbat eta hainbat ikastaro antolatzen dituzte urtero, bazkideentzat eta baita itzulpengintzan elkartetik kanpo aritzen diren ez profesionalentzat ere.

### Beharrak Historia

Martuteneko Eskola sortzearen ideia edo enkargua Euskaltzaindiak eman zion Xabier Mendigureni. Euskara batua finkatuta zegoen eta horren aldeko hautua garbia zen, baina hizkuntza bateratua garatu eta gauzatu behar zen, paperetatik eta arauetatik errealitatean eraman behar zen, erabili behar zen, eta korpusa zabaldu, alor berrietara egokitu... Eta horri ekin zioten itzultzaile, zuzentzaile eta baita interpreteek ere.

Lehen urte haietan Senez aldizkari profesionala ere sortu zuten, 1984.ean, Martuteneko Eskolako irakasleen eskutik eta UZEIrekin elkar-lanean (lehen alean bakarrik aritu ziren elkarrekin). Irakasle horiek beraiek izan ziren hiru urte berandago Eizie sortzea erabaki zutenak, profesionalen topagune izan zedin, kolegio profesionalen moduan.

Euskararen normalizazioaren bidean beharrak garbiak ziren eta hutsuneak, hamaika. Bat oso garbi ikusi zuten: literatura unibertsala euskaratzeko beharra. Eusko Jaurlaritzak dirua jarri zuen eta mundu mailako titulu onenak euskaratzeko lehiaketa publikoak deitu zituen. Horretan jarraitzen dute eta gaur egun mundu osoko literaturaren ia 200 gailur daude irakurgai euskaraz. Berriki, gainera, Urrezko bilduma ere abiatu dute, garai batean itzulitako lanak eguneratu eta berrargitaratzeko.

Beste hutsune bat sortu berria zen EITBekin etorri zen 80ko hamarkadan bertan: euskara batuaren estandarizazioa ahozkotasanera eraman behar zen eta hori lantzeko itzultzaile talde berezia sortu zen. Hasieran, batez ere, oso arrotza egiten zitzaizen ikusleei itzulitako pelikulak ikustea eta hesi hori gainditzea izan dute helburu urte hauetan guztietan.

Beste hesi bat gainditzen ere saia-



Azken batzar nagusira bertaraturiko bazkideak atarian. Argazkia: N.G.

tu dira, literaturan bertan itzulpen-gintzaren kontrako jarrerarena, jatorrizko testuen defentsa aitzakia. Eta hor ere aurrera egitea lortu dute. "Euskararen kasuan, Anjel Lertxundi eta Bernardo Atxaga bezalakoek aitortu dute euskarazko itzulpengintzak elementu berriak eman dizkiola literaturari", azaldu du Del Olmok.

Euskal erakundeek eta bestelakoek antolatutako ekitaldiak biderkatzen hastean, interpreteen beharra ere garbia zen. Hasierako urte haietan kabinarik gabe aritzen ziren eta formazioa falta zitzaien. Egoera aldatu da baina, gaur egun, oraindik, interpretearena osperik gabeko lanbide baten moduan hartzen dutela askok uste du Del Olmok.

Ospe hori, orokorrean, itzultzaile eta zuzentzaileek ere ez dutela dirudi eta gaur egun teknologia berriei esker egiten diren itzulpen mekanizatuak eta automatikoak ere ez dute horretan lagundu. Horregatik, lan profesionalaren kalitatearen eta behararen aldarria egiten jarraitzen du EIZIEk.



Lurdes Auzmendi, Xabier Mendiguren eta Josu Zabaleta abenduan jaso zuten omenaldian. Argazkia: N.G.

**Unibertsitatea Mailazientifikorantz**

Batzuen eta besteen profesionalizazioan indarra egin eta hori lortzeko formazioa bultzatzen ere saiatu da. Hasieran Martuteneko Eskolako agiri ez ofizialak ziren euskal itzultzaileen titulu bakarrak; aurrerago EHU master bat sortu zen eta egun gradu bat dago: lanbide hori jorratu nahi duten gazteek aukeratzen duten bidea izaten da hori nagusiki. Unibertsitatean presentzia izateak euskal itzulpengintza maila zientifikora eraman duela nabarmendu du Del Olmok, alor horretako tesiak eta doktoreak sortzen ari baitira azken urteotan. Haien eskutik doa ikerketa eta itzulpengintzaren teoria; horiei begira, Eiziek praktikarekin jarraitzen du bien bitartean.

Itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen topagune eta gogoetarako gunea da eta eguneroko zalantzak argitzeko gunea ere bai. Teknologia berriei esker eta Interneti esker, baliabide guztiak guztien esku jartzen ditu pantaila bakarrean. Munduko beste hizkuntzetako elkarteekin harremana ere mantentzen du eta batzuen eta besteen ekarpenak baliotsuak direla dio Del Olmok.

Eiziek itzultzaileak biltzen ditubaina, gaur egun, duela 30 urte bezala, argitaletxeek erabakitzen dute nagusiki zer itzuli literaturari dagokionez. Hala ere, hor ere jauzi nabarmena ikusi du Del Olmok: hasierako urteetan gaztelaniazko eta ingelesezko lanak itzultzen ziren gehien bat eta, gaur egun, gazteak ingelesezko jatorrizko testu asko irakurtzeko gai direla, beste hizkuntza batzuk aukeratzen dituzte. Hala, japonieratik, txineratik edo arabieratik euskaratutako liburuak ohikoak dira.

Beste berrikuntza bat formatuei dagokie, indartzen ari diren formatu berriei egokitutako itzulpengintza jorratzen ari baitira: webguneak, bideojokoak, komikiak, antzerkia...

Dena den, Del Olmok gaur egun oraindik ere itzulpen politika orokor baten beharra dagoela uste du, lehen-tasunak argitzeko alor desberdinetan

**SORRERA**

● **Martuteneko Eskola.** 1980. urtean sortu zen itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak trebatzeko. 1987. urtean sortu zen Eizieren abiapuntua izan zen. Juan Mari Lekuona izan zen lehen lehendakaria eta harekin batera osatu zuten zuzendaritza batzordea Xabier Mendigurenek, Josu Zabaletak, Ramon Etxezarretak, Juan San Martínek eta Lurdes Auzmendik.

● **Helburuak.** Hasierako helburuek indarrean jarraitzen dute: lanbidearen estatusaren defentsa eta langileen trebakuntza. Hasieratik formakuntza tailer eta ikastaroak antolatzen jarraitzen du.

● **Bazkideak.** Eizieko bazkideak itzultzaile, zuzentzaile eta interprete profesionalak dira.

● **'Senez'.** Euskal itzulpengintzaren inguruko aldizkari profesionala da eta 1984. urtetik argitaratzen da.

● **Teknologia berriak.** Elkartea aitzindari izan da teknologia berrien erabileran eta haiei esker baliabide asko digitalizatu eta itzultzaileen eskura jarri ditu Interneten bidez.

eta esfortzuak eta lana norabide zehaztuetan bideratzeko.

**Urteurrena Omenaldia**

2017 urtearen bukaeran bete ziren Eizieren sorreraren 30 urteak eta urteurrena ospatzeko elkartearen hasieratik lanean aritu direnei omenaldi modukoa egin zieten abenduan Donostian. Elkartearen sorreran lan egin zuten guztien izenean esker ona eta oroigarria jaso zuten Lurdes Auzmendik, Xabier Mendigurenek eta Josu Zabaletak. ●

**TOLOSA 2018 XVII. MUS TXAPELKETA AZKARRA**

**Urtarrila Enero 27 Larunbata** **Ordua Hora 16:30**

**SARIAK - PREMIOS 3.350 €**

1º- 1.300 € + Txapelak	Plaza Pre-Master para los cuatro primeros clasificados
2º- 600 € + Garaikurrak	
3º- 300 €	• Se jugará a 4 reyes y 3 juegos de 6 hamarrekos.
4º- 150 €	• Inscripción Café Frontón: 40 Euros por pareja
5º- 100 €	• La decisión de los jueces será inapelable. La organización se reserva el derecho de admisión
6º- 100 €	• Las dos finales se jugarán después de cenar, en el Kafe Fronton
7º- 100 €	• Inscripción: 15:30 a 16:30 en Frontón Kafetegia
8º- 100 €	• Información: telf.: 609 44 70 90 y 943 65 14 70

**FASE DE CONSOLACION**

Se jugará entre los perdedores de la primera eliminatoria

1º- 400 €
2º- 200 €

**Participantes:** ALUSTIZA, Keler, BAKER, KARELA, HUEVOS UZTURRE, KHRIS, RAKU, OSIN, LAGUNILLA, LAGUNILLA.

**Patrocinadores:** Laguntzaileak, Tolonako Urtzia, Gipuzkoa, EL DIARIO VASCO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO, OLAFIO.